

Enpresei ingurumenaren arloan ematen zaizkien Europako sariak dira, EAE atalekoak

**EROSKI-RI SARIA EMAN DIOTE TOKIKO
ARRANTZA JASANGARRI ETA
ZIURTAGIRIDUNAREN ALDE EGITEAGATIK**

- Sariak aitortzen dio EROSKIri arrantzaleku eta akuikultura jasangarrietatik datorren arrainaren alde egin duen lana
- Bi urtean behin antolatzen du Europako Batzordeak sariketa hori, beren negozioen bideragarritasun ekonomikoa eta ingurumenaren babesa arrakastaz konbinatzen dituzten enpresei aitortpena egiteko
- Orain hiru urte, EROSKI bihurtu zen Espainian txikizkako banaketa kate bakarra, MSC nazioarteko erakundearen ikuskaritza gainditu zuena; horri esker, ziurtatu ahal du bere zaintza kateko arrain freskoa arrantzaleku jasangarrietatik datorrela
- EROSKI 3.144 tonataraino erostera iritsia da jasangarriaren ziurtagiria duen arrainetik

Bilbo, 2020ko ekainaren 2a.- [EROSKI](#)ri ingurumen arloko saria eman diote EAEko enpresen atalean, arrantzaleku eta akuikultura jasangarrietatik datorren arraina kudeatzen eta banatzen egin duen lanagatik. Zehazki, *garapen jasangarriaren aldeko produktua eta/edo zerbitzuaren* kategorian eman diote, enpresa ertain eta handien atalean. Europako Batzordeak bi urtean behin antolatzen du sariketa hori, beren negozioen bideragarritasun ekonomikoa eta ingurumenaren babesa arrakastaz konbinatzen dituzten enpresei aitortpena egiteko.

"Sari honek aitortzen digu etengabe ahalegintzen garela ingurumen eta gizarte alorretako jasangarritasun estandarrak hobetzen balio kateko prozesu guztietan, jatorritik hasi eta dendetako operazioetaraino. Kontsumitzaileak bermatua du gure mahaietan arrantzaleku eta ekoizpen jasangarrien ekoetiketa duen arrain freskoa. Gainera, horrelako arraina EROSKI Natur markarako tokian tokiko kofradia ziurtagiridunei erosteko konpromiso publikoa hartuta, lanpostuei egonkortasuna ematen ari gara oso gorabeheratsua den sektore batean. [Osasunaren eta Jasangarritasunaren alde hartuak ditugun hamar konpromisoetan](#), elikadura jasangarria sustatzea da helburua", esan du EROSKIko Osasun eta Jasangarritasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Aurrendaria bere arrandegietan iraunkorraren ziurtagiria erabiltzen

Orain hiru urte, EROSKI bihurtu zen Espainian txikizkako lehen banaketa katea, MSC Marine Stewardship Council nazioarteko erakundearen ikuskaritza gainditu zuena; horri esker, ziurtatu ahal du bere zaintza kateko arrain freskoa arrantzaleku jasangarrietatik datorrela. EROSKIko arrandegietan, pixkanaka joan da hedatzen ziurtagiria, eta gaur egun, 342 mahaietan darabilte sail horretako arrain freskoa; horrez gain, hor dira EROSKI taldearen zortzi plataforma logistikoak ere; bertatik banatzen du arrain fresko hori bere denda sarera.

Bestalde, orain dela bi urte, EROSKI lehen banaketa katea izan zen Espainian eta bigarrena Europan GLOBALG.A.P akuikulturako ziurtagiriaren ikuskaritza gainditu zuena. Ziurtagiri horrek zaintza kate osoan bermatzen du arrandegian saltzen dituen espezieak —era horretan hazitakoak— bide seguruak eta jasangarriak erabiliz ekoitzi dituztela.

EROSKI 3.144 tona erostera iritsi zen 2019an jasangarriaren ziurtagiria duen arrainetik. Arrain ziurtagiridunaren guztizkotik, 1.880 tona Marine Stewardship Councilenak dira, zeinak bermatzen baitu arraina arrantzaleku jasangarrietakoa dela, eta beste 820 tonak akuikulturako GGN ziurtagiria dute (GLOBALG.A.P. Number). Horretaz gainera, kontserben erosketetatik nabarmentzekoa da 392 tona hegaluze kainaberarekin arrantzatuak izan direla eta 51 tonak AENORen *Atun Arrantza Arduratsuaren* ziurtagiria dutela.

Ingurumenarekiko errespetua

EROSKI konpromiso sendoa du ingurumena errespetatzeko; alde horretatik, gogoraraztekoa da ostiralean (ekainak 5) Ingurumenaren Mundu Eguna izango dela. Hala, ildo horretan, ekimen askotarikoak lantzen ditu bere jarduerak inguru hurbilean duen eragina murrizteko. Produktu jasangarriagoak merkaturatzea, ontzien eta bilgarrien ekodiseinua lantzea, baliabideak modu jasangarrian erabiltzea, ingurumenaren gaineko arrastoa murriztea, hondakinak ekonomia zirkularraren ereduarekin kudeatzea, bioaniztasuna zaintzea... Horiek guztiak betebeharrak direla EROSKIrentzat, eta halaxe jasoak ditu *Osasunaren eta Jasangarritasunaren aldeko Konpromisoetan*.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)